

**KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PORTUEN ETA ITSAS GARRAIOAREN LEGE AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.**

*Tramitagune -DNCG\_LEY\_6924/2013\_09*

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak erregulatzen du ekonomia- eta arau-kontrola, III. tituluko IV. kapituluaren 3. artikuluan. Kontrol hori nahitaezkoa da, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eginiko txostenaren bidez gauzatzen da.

Kontrol horretan sartzen da, ekonomiari eta antolamenduari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko organo ororen eraketa zein ezabaketa fiskalizatzea, baita organo horien aldaketak eta berregituraketak fiskalizatzea ere.

Honako txosten hau egin da, xedapen hauek kontuan hartuta: aipatu den araua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomia-kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuko III. kapituluaren 3. atala, eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 2013ko apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 4. a) artikulua.

**TXOSTENA:****I. HELBURUA**

Txosten honen helburua da goiburuan adierazitako izenburuko proiektuaren ekonomia- eta araudi-kontrola egitea. Proiektu horrek honako xede hauek ditu:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren portuei eta portu eta itsas instalazioei aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzea.

2.- Portuen plangintza-, antolamendu-, ustiapen-, eraikuntza-, zabaltze-, berrikuntza- eta mantentze-araubideak ezartzea, baita portu-zerbitzuak emateko eta horietarako sarbidea eta erabilera-eskubidea izateko araubideak ere.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa den portuko jabari publikoaren kudeaketa erregulatzea, horren erabilera-araubidea zehaztuz.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko portuko administrazioaren egitura eta funtzionamendua ezartzea, eta KAIKAK zuzenbide pribatuko erakunde publikoa sortzea, Euskadiko portuen kudeaketaz ardura dadin eta Euskal Autonomia Erkidegoko portu-administrazioiko parte izan dadin.

5.- Portuko jabari publikoa erabiltzearen eta portu-zerbitzuak ematearen ondoriozko ekonomia- eta finantza-araubidea erregulatzea.

6.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa den bidaiarien itsas garraioa, salgaiena eta mistoa erregulatzea.

7.- Erkidegoko portuko jabari publikoko zehapen-araubidea zehaztea, baita Euskal Autonomia Erkidegoko portuko administrazioari dagozkion ikuskapen- eta kontrol-ahalmenak ere.

Gainera, azken xedapen baten bidez (*lehenengoa*), irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina (*TPPLTB*) aldatzen du, portuko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteagatik, edo zerbitzu orokorrak emateagatik, ordaindu beharreko portuko tasak berriz zehazteko eta berregituratzeko helburuarekin, Legean bertan jasotako preskripzioekin bat etorriz.

## II. AURREKARIAK ETA ESPEDIENTEAN SARTUTAKO DOKUMENTAZIOA

Lehendabizi, adierazi behar da bulego honek, Euskal Autonomia Erkidegoko portuak erregulatzeko asmoz, bi lege-aurreproiekturi buruzko txostenak egin zituela (*VIII. eta IX. legealdietan izapidetuak, hurrenez hurren*) 2008-03-25ean eta 2012-01-27an, eta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman ondoren (*2008-06-25eko 141/2008 irizpena eta 2012-04-25eko 69/2012 irizpena*), Gobernu Kontseiluaren dagozkion erabakien bidez onartu zirela (*2008-09-30eko eta 2012-06-12ko bilkuretan*).

Lege-proiektuak Legebiltzarraren izapidetzean bertan behera gelditu ziren, kasuan kasuko legealdia amaitu zelako.

Orain izapidetze-prozesuan dagoen aurreproiektua "LEGEGINTZAKO PROIEKTUAK" zerrendan agertzen da, eta hura abiarazteko ahalmena Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dagokio. Gobernu Kontseiluak 2012-06-25ean onartutako X. legealdiko (2012-2016) egutegiaren barruan dago [*i. eranskina*], "Portuen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea" izenarekin, eta 2015eko lehenengo seihilekoan egitea zegoen aurreikusita.

Aipatutako erabaki horretako II. eranskinean (*Fitxa informatiboen dokumentua*) honako hau dago jasota:

### 29.- Portuen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

*a.- Izena: PORTUEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.*

*b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:*

#### *b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:*

- Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuen erregulazio osoa, portu-eremuaren lurralde- eta hirigintza-antolaketa eginez, portu-plangintzarekin beharrezko lotura gauzatzuz eta euskal titulartasuneko portuak ustiatuz eta eraikiz.
- Portu-jabari publikoaren kudeaketa mugatzea.

#### *b.2.) Beste helburu batzuk:*

- Portuetako zerbitzuen aldean onartutako jardueren, instalazioen, eraikuntzen eta erabileren erregulazioa.
- Portu-zerbitzuak emateko araubidearen erregulazioa.
- Zehapen-araubidea ezartzea, hala nola EAEko portuko administrazioari dagozkion ikuskatze-, zaintze- eta polizia-ahalmenak.

#### *b.3.) Eraginpeko gizarte-sektoreak:*

- Gipuzkoa eta Bizkaiko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko ganberak.
- Kofradiak.
- Arraina ekoizten eta merkaturatzen duten elkarteak.
- Itsas Industrien Elkarteak eta ontziolak.
- Lanbide-elkargoak.



- *Sindikatuak.*
- *Itsasketa-eskolak.*
- *Itsas klubak.*
- *Erabiltzaileen federazioak.*
- *Tokiko kostaldeko administrazioak.*
- *Herritarrak.*

**c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:**

*Finantza-eragina urraketan aurka erabil litekeen zehapen-araubideari lotuta egongo litzateke, baita portuko administrazioak jasotako tasei lotuta ere. Baina azken horrek lotura handiagoa du tasei buruzko legearekin, eta haren aldaketa bat Portuen Legean sartu ahal izatearen mende egongo litzateke.*

**d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Gobernu Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.**

*2015eko lehen seihilekoa.*

Bestalde, 2015eko Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan, 5151 aurrekontu-programari (*Portuak*) dagokion aurrekontu-memorian, hau dago jasota: "Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen Legearen Aurreproiektuaren izapideek aurrera jarraituko dute, portu-sektorea erabat erregulatze aldera, portuko administrazioak azpiegitura horiek modu egokian ordenatzeko beharrezko zehapen-araubidea aplikatzeko behar adinako autoritatea izan dezan".

Testuingurua halakoa izanik eta aipatutako legegintzako egutegian jasotako konpromisoa eta aurreikuspena betetze aldera, dagokion espedientea egin da eta bulego honetara bidali da (*izapide elektronikoa egiteko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez - DNCG\_LEY\_6924/2013\_09*), horren gaineko ekonomia- eta arau-kontrola egiteko, honako dokumentazioa:

**1.-** *Agindua, 2013ko uztailaren 31koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, erreferentziazko aurreproiektuari dagokion testua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.*

**2.-** *Agindua, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege Aurreproiektuaren testua aurrez onartzen duena (elektronikoki sinatua, 2014ko uztailaren 2an).*

**3.-** *Proiektatutako arauaren generoaren araberako eragin-txostena, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak egina (elektronikoki sinatua, 2014ko uztailaren 28an eta abuztuaren 28an).*

**4.-** *Aurreproiektuaren justifikazio-memoria, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzarena (elektronikoki sinatua, 2014ko abuztuaren 28an).*

**5.-** *Azterketa juridikoaren txostena, ekimena sustatu duen saileko Zerbitzu Zuzendaritzarena (elektronikoki sinatua, 2014ko urriaren 7an).*

**6.-** *Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege Aurreproiektuaren 1. bertsioari dagokion testua (2014ko urriaren 9an espedientera sartua).*

**7.-** *Txostena eskatzeko (honako erakunde hauei: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza - HAHNZ-, Euskadiko Udal Kontseilua, Zerga Administrazioa, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza, Herritarrak Hartzeko eta*

Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza) eta proiektatutako arauaren testua lekualdatzeko (saileko aholkularitza juridiko desberdinen alegazioetarako) ofizioak, 2014ko urriaren 16koa eta 17koa.

**8.-** Ebazpena, 2014ko urriaren 20koa, Garraio sailburuordearena, aztergai dugun aurreproiektua jendaurrean jartzen duena (EHAA, 205. zk., 2014ko urriaren 28koa).

**9.-** Alegaziorik egin ez dutela adierazteko idatziak, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzarena (elektronikoki sinatua, 2014ko urriaren 21ean) eta Lehendakaritzako Araubide Juridikoaren Zuzendaritzarena (elektronikoki sinatua, 2014ko urriaren 24an).

**10.-** Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena (elektronikoki sinatua, 2014ko urriaren 27an).

**11.-** Herri Administrazio eta Justizia Saileko aholkularitza juridikoaren alegazioen idatzia (elektronikoki sinatua, 2014ko urriaren 28an eta azaroaren 3an).

**12.-** Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (elektronikoki sinatua, 2014ko urriaren 29an).

**13.-** EMAKUNDEren txostena (elektronikoki sinatua, 2014ko azaroaren 10ean eta 7an).

**14.-** Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Zerbitzuen Zuzendaritzaren idatzia (elektronikoki sinatua, 2014ko azaroaren 10ean), alegaziorik ez dagoela adierazten duena.

**15.-** Prozeduran parte hartzeko eskaera egiteko ofizioak (2014ko urriaren 16koa, 17koa eta 21ekoa), hainbat instantzia instituzional zuzendutakoak: Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioa (Euskal Autonomia Erkidegoko Kostalde Mugapea), Merkataritzako Ontzidiaren Zuzendaritza Nagusia, hiru lurralde historikoetako foru aldundiak, Autonomia Erkidegoko zenbait udal (Bermeo, Deba, Donostia, Ea, Elantxobe, Getaria, Hondarribia, Lemoiz, Lekeitio, Mutriku, Ondarroa, Orio, Plentzia, Zumaia), portu-agintaritzak (Bilbokoa eta Pasaiakoa), eta portuetako lurralde-zerbitzuetako arduradunak eta kideak (Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak). Baita beste erakunde batzuei ere: EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarte; CCOO-Comisiones Obreras de Euskadi; LAB sindikatua; UGT-Euskadi sindikatua; Itsasmendikoi S.A.; Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialak (Bilbokoa eta Gipuzkoakoa); Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariei Elkargo Ofiziala; Herri Lanetako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofiziala (Bilbo); Arrantzale Kofradien Federazioak (Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa); Euskadiko Arrain Salerosleen Federazioak (FECOPE); Gipuzkoako Baxurako Armadoreen Elkarte; Euskadiko Kirol Portuak; Euskadiko Itsas Industrien Elkarte (ADIMDE); Bilboko Nautika Goi Eskola Teknikoa; Ondarroako Portuko Alturako Arrantzako Ekoizleen Erakundea (OPPAO); Donostiako Errege Klub Nautikoa; Hondarribiko Klub Nautikoa; MARBECO S.A. (Bermeo) eta Bermeo Of Shore S.A. (Bermeo) kontsignatario-elkarteak; Astilleros Murueta, Aisialdiko Arrantzako eta Nautikako Elkarten Federazioa (FASNAPER); Euskal Herriko Urpeko Jardueren Federazioa; Nautikako eta Arrantzako Tituludunen Espainiako Elkarte; Espainiako Merkataritza Ontzidiaren Elkargo Ofiziala (COMME); Euskal Ontzi Jabeen Elkarte (ANAVAS). Horrez gain, ekimenaren berri eman zitzaizen, kontsulta egite aldera, Europako Batzordeari eta Lehendakaritzako Europako Gaietarako Zuzendaritzari.

**16.-** Alegazio-idatziak, hainbat udalena (Bermeo, 2014-11-19; Deba, 2014-11-20; Ea, 2014-11-18; Getaria, 2014-11-20; Mutriku, 2014-11-20; Ondarroa, 2014-11-20; Orio, 2014-11-20; Plentzia, 2014-11-26), sindikatuenak (LAB, 2014-11-10; UGT, 2014-11-20; eta ELA, 2014-

11-25), *Garraio Azpiegituren Zuzendaritzako eta Gipuzkoako Portuen Lurralde Zerbitzuko langileenak (2014-11-21 eta 2014-11-19, hurrenez hurren), Bilboko Itsas Kapitaintzarena (2014-20-29), Euskal Herriko Garraiolari Autonomoen Elkartearena (ASOTRAVA; 2014-11-12); Euskal Herriko Itsas Foroarena (2014-11-10); Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargo Ofizialarena (2014-11-21), Euskadiko Arrain Salerosleen Federazioarena (FECOPE; 2014-11-21), Bilboko Portu Agintaritzarena (Bilbao Port B; 2014-11-20) eta MARBECO S.A.arena (2014-11-20).*

**17.-** *Txostena, 2014ko azaroaren 13koa, Kultura Ondarearen Zentroarena (Kultura Ondarearen Zuzendaritza), 2014ko azaroaren 21eko espedientean sartutakoa.*

**18.-** *Txostena, 2014ko azaroaren 20koa, Lehiaren Euskal Agintaritzarena.*

**19.-** *EUDELen txostena (2014-11-20ko Batzorde Exekutiboan onartua).*

**20.-** *Memoria ekonomikoa, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzarena (elektronikoki sinatua, 2014ko abenduaren 22an).*

**21.-** *Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, 2015eko urtarrilaren 26koa.*

**22.-** *Zerga Administrazioiko Zuzendaritzaren txostena (elektronikoki sinatua, 2015eko otsailaren 16an).*

**23.-** *Txostena, 2015eko otsailaren 23koa, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarena.*

**24.-** *Ziurtagiria, 2015eko otsailaren 25koa, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeko idazkariarena, aztergai dugun Lege Aurreproiektuari buruzko otsailaren 23ko 3/2015 txostena onartu izanari dagokiona (txostena barne hartzen du).*

**25.-** *8/15 Irizpena, 2015eko maiatzaren 29koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena (EGAB).*

**26.-** *Bulego honi txostena eskatzeko ofizioa (2015eko ekainaren 4koa).*

**27.-** *Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege Aurreproiektuaren zirriborroaren testua, Aurreproiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidaltzeko aginduaren zirriborroari erantsitako bertsioari dagokiona (2014ko ekainaren 26ko espedienteari erantsia).*

### **III. AZTERKETA**

Bidalitako agiriak aztertu ondoren, uste dugu bat datozela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomia-kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuko 42. artikuluko aurreikuspenekin, eta agiri horiek informazio nahikoa biltzen dutela bulego honek ekonomia-kontrola egin dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 25., 26. eta 27. artikuluen arabera.

#### **A) Prozedura eta izapidetzea:**

**A1).-** Helarazitako dokumentaziotik ondorioztatzen da azterketaren xede den aurreproiektua egiteko prozeduran Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak eskatutako betekizunak arrazoiz bete direla gaur arte.

**A2).-** Dena den, honako alderdi hauek kontuan hartu beharrekoak dira:



**a).**- Kontuan izanda aipatutako Legearen 4. artikulua dagokion araudi-proiektuan esku hartzen duten sailburu guztien parte-hartzea, sustatzaile gisa, barne hartzen duela, proiektuak horietako bik edo gehiagok zuzeneko eskumena esleituta duten arloei eragiten badie, eta aztergai dugun proiektuak, portuetako eta itsas gaietako arloez gain, EAEko Ogasun Nagusiari ere eragiten badio (esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 1.2 artikuluan identifikatutakoak: *ondare-araubidea, administrazio-kontratazioa eta zergen nahiz zuzenbide publikoko eta pribatuko gainerako diru-sarreraren erregulazioa*), egokia litzateke Jaurlaritzari proiektua onartzeko proposamena batera egitea Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak eta Ogasun eta Finantza sailburuak.

Horrez gain, zuzenbide positibo aplikagarri ez dakarrenean ere, kolaziora ekarri behar da, kontuan hartu beharreko kongruentzia-parametro gisa bada ere, 2014-09-16ko Gobernu Kontseiluan (*organo horren menpe egongo da hemen aztergai dugun aurreproiektua ere*) onartutako Administrazio Publikoaren Legearen proiektuak aipatzen duela (36. art.), Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraz besteko erakundeak osatzea helburu duten xedapenen kasuan, adskribatzea aurreikusten den administrazio orokorreko sailaren eta ogasunaren arloan dagokion sailaren artean izapidetutako gisa sustatu beharko direla.

**b).**- Erreferentzia egin behar zaio halaber, behin baino gehiagotan gertatu delako, espediente honen prozedura-anomaliari. Anomalia hori gertatu da, proiektuaren izapideak arintze aldera, prozeduran parte hartzen duten sektoreei ikuskaritza bat emateagatik, berariaz eraturako organo kolegiatu batek nahitaez prozeduran parte hartu beharrean (*kasu honetan, maiatzaren 23ko 90/2000 Dekretuaren bidez sortutako Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa; EHAA, 107. zk., 2000-06-07koa*), hori osatzen duten sektoreei. *Organo horren funtzioak dira arloan eskumena duen gobernu-sailak portu- eta itsas gaien arloan prestatu eta bidaltzen dizkion gai, plan eta legezko xedapenetarako proiektuak analizatzea, aztertzea, eztabaidatzea eta horiei buruzko txostenak egitea.*

**c).**- Bestalde, espedientean barne hartu beharreko dokumentuen artean ez da txertatu enpresaren gaineko eraginari buruzko txostenik, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua eskatzen duenaren araberrakorik -EHAA, 132. zk., 2012-07-06koa-, ezta hori ez txertatzeko arrazoirik ere.

Era berean, aipatu beharrekoa da Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an hartutako erabakia, izaera orokorreko xedapenen izapidetze-jarraibideak onartzen dituenak. Haren arabera, besteak beste, ezartzen da memoria laburrak, zeina abenduaren 2ko 8/2003 Legearen 10. artikuluan aurreikusten baita, araudi-proiektuak administrazio-kargetan izango duen eraginari berriazko erreferentzia bat jaso behar duela, arau berriak beharrezkoak ez diren oztipoak eragin ditzan ekiditeko. Ildo horretan, egiaztatu da bulego honi dagokion kontrol-izapideak gauzatzeko unean, espedientean ez dela gai honi buruzko informaziorik agertzen, eta, ondorioz, nahitaez aipatu beharko da Gobernu Kontseiluari bidaltzen zaion espedienteari erantsiko zaion memoria laburrean.

Hutsune horiek prozeduran zuzendu beharko dira, Gobernu Kontseiluak aztertu eta ebazteko espedientea osatzearren. Gogorarazi behar da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta erabakitzeko igorri aurretik, *espedienteari prozedura osoaren memoria labur bat erantsi beharko zaiola, eta, bertan, honako hauek guztiak zehaztuko dira: aurrekariak, egindako izapideak, izapideen emaitzak eta, egindako txostenen ohar eta iradokizunei egokitzearen, batez ere txostenetan egindakoei, proiektuaren testuan sartutako aldaketak; behar besteko zehaztasunez arrazoituko da zergatik ez diren onartu txosten horietan egindako oharrak, eta zehatz-mehatz arrazoituko da, orobat, azkenean erabakitako testua zergatik den antolamendu juridikoaren arabera* –abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikulua–. Gogorarazi behar da, halaber, espedienteak hori aplikatzeak beste administrazio publiko batzuei, partikularri eta ekonomia orokorrari ekar dakiekeen kostua ebaluatzen duen memoria bat barne hartu beharko duela (*abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 art.*).

**d).**- Aztertutako alderdi desberdinei aplikatzen zaien erregulazio zehatza ezartzen duten arrazoen justifikazio-memoria bat falta da (betiere, ordenamendu juridikoak ematen dituen aukeren barnean), baita proiektatutako erregulazioa bulego honen menpe utzi arte gauzatutako prozeduraren laburpen-memoria bat ere, bulegoaren kontrolpean dagoen testuaren alderdi batzuen tratamenduan egon den alde nabaria dela eta, hasieran onartutakoarekin alderatuta. Gabezia hori dela eta, ezin dira zehazki ezagutu testuan eginiko aldaketak, eta justifikaziorik gabe gelditzen dira aldaketen eragina jasan duten alderdien erregulazio-tratamendua lehen bertsioari dagokion justifikazio-memorian behar bezala justifikatu gabe dagoen kasu guztietan.

**A3).**- Edonola ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, aurreproiektua aholku-erakunde horren irizpenaren menpe jarri behar da onartu aurretik.

Horri dagokionez, gogorarazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.2 artikuluan ezarritakoarekin bat (*Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen azken xedapenetatik lehenean emaniko idazketaren arabera*), jakinarazi egin beharko zaizkiola Kontrol Ekonomikoko Bulegoari lege-aurreproiektuetan eta xedapen arautzaileen proiektuetan sartzen diren aldaketak, horiek Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren iradokizun eta irizpen proposamenen ondorio direnean (*horretarako, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren zuzendariaren 2005eko urriaren 14ko 2/2005 zirkularrean ezarritakoa bete beharko da*).

## **B) Testua eta edukia**

**B1).**- Txosten honen II. atalean aipatutako dokumentazioa aztertu ondoren, *eta txosten honetako A2) ataleko c) eta d) puntuetan aipatutako gabeziak kontuan hartuta*, pentsa dezakegu aztergai dugun lege-aurreproiektuaren azken bertsioari dagokionez (*orain arte, 25.a)* aurkeztutako testuan kontuan hartu direla, eta partzialki erantzun direla, ikuskaritza-izapideetan parte hartu duten erakundeek egindako alegazioak eta orain arte

arau hau egiteko prozeduran parte hartu duten instantziak egindako adierazpenak (*azken batean, berez horiei dagokie aztertutako araudi-proiektuan egindako aldaketek alegazioetan eta txostenetan egindako oharrei erantzuten dieten edo ez interpretatzea*). Alabaina, espedientean ez dira azaldu gainerako alegazioak atzera botatzeko arrazoiak.

**B2).**- Aurkeztutako testuari dagokionez, eta erakunde berri bat eta administrazio-organo berriak sortu izanaren eta aurrerago (*txosten honen c) atalean*) landuko ditugun beste erakunde batzuk kendu izanaren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak bere antolamendu-egituran jasandako eraginak alde batera utzita, egokitzat jotzen dugu honako gogoeta hauek egitea:

**1.-** Komenigarria litzateke aurkeztutako testuaren 3. artikuluko definizioen artean "goragoko mailako plangintza-tresnak" sartzeari (5.a), 9. eta 23.a) artikuluetan aipatzen direnak, halako izendapenik eman gabe.

**2.-** Argiago azaltzeko asmoz eta operadore juridikoak errazago erabil ditzan, proiektatutako testuan "portuko administrazioari" egiten zaizkion erreferentzia guztien ordez kasu bakoitzean Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrari edo KAIA erakunde publikoari dagokionarekin aldatzea komeni ote den ondo pentsatzea gomendatzen da.

**3.-** Bulego honen iritziz, Portu Antolamendurako Plan Berezian urgentzia egiaztatutako kasuetarako edo salbuespenetzko interes publikoko kasuetarako (*proiektatutako testuaren 14.3 artikuluan aipatzen dira*) ezarri gabeko obra-baimenen prozedura behar bezala erregulatzeko, beharrezkoa da zehaztutako Gobernu Kontseiluaren esku-hartzea hobeto zehaztea, bai irismenari dagokionez (*jakinaraztea besterik ez, edo alegatutako urgentzia edo salbuespenetzko interes publikoko kasuak egiaztatzen dituen adierazpena egitea nahitaez*) bai esku har dezakeen prozesuko uneari dagokionez (*baimena baino lehen edo ondoren*).

**4.-** Portu-zerbitzuak emateko araubidearen zehaztapenari dagokionez (*proiektatutako Legearen helburuen artean adierazten da alderdi hau; proiektuaren 1.2 art.*), adierazi behar da aztergai dugun testuan alderdi horri emandako tratamendua (*30. eta 31. art.*) ez dagoela oso ondo zehaztuta, izan ere, zerbitzu-zerrenda orokor bat (*30. art.; araudien bidez alda daiteke*) eta kudeaketa-mekanismoen zerrenda bat (*31. art.; zuzena, zeharkakoa edo horretarako baimena duten partikularrek gauzatutakoa, lehiaketa bidez*) besterik ez ditu aipatzen. Zerbitzu jakin bat zeharkako kudeaketatik kanpo uzteko erreferentzia orokor bat besterik ez du egiten: agintaritzak gauzatzeko beharra ekartzea edo, beste baldintza batzuk direla eta, zuzeneko kudeaketa komenigarria izatea. Espedienteak zerbitzu horien kudeaketa-ereduaren tratamendu berriarentzako justifikaziorik ematen ez duenez, bulego honek uste du komenigarria dela behin-behinean onartutako testuaren lehen bertsio 27., 28. eta 29. artikuluek zehaztutako eredu berreskuratzea, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak otsailaren 23ko 3/2015 txostenean horientzat eginiko proposamenak gehituta.

**5.-** Ez ditugu ulertzen proiektatutako testuak dagoeneko existitzen den araudi bat bi xedapenen bidez indargabetu nahi izateko arrazoiak (xedapen indargabetzailea eta azken xedapenetatik bigarrena). Lege proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen 1993ko martxoaren 23ko Gobernu



Kontseiluaren erabaki bidez onartutako Bigarren Jarraibideko III. 3 atalean zehaztutakoaren arabera, indargabetu beharreko araudiaren eta horri buruzko gainerako aurreikuspenen zerrenda estipulazio bakar batean jaso beharko litzateke (*xedapen indargabetzailea*).

### **C) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egituraren duen antolamendu-eragina.**

**C1).**- Atal honetan, aztergai dugun testuak jasotzen duen proiektatutako erregulazioak eragina du bai Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren esparruan bai bertako administrazio instituzionalen, baita bertako sektore publikoan ere, honako gertakari hauen ondorioz: (1) zuzenbide pribatuko erakunde publiko berri bat sortzea (KAIK); (2) beste administrazio-unitate bat sortzea: Itsas Garraioko Enpresen Erregistroa (IGEE); (3) portuen esparruko egungo aholkularitza-, kontsulta- eta eztabaida-organoak kentzea, zehazki, honako hauek: *Hondarribiko, Getariako, Ondarroako eta Bermeoko portuetako Portu Batzarrek (Portu Batzarrek sortzen dituen ekainaren 4ko 359/1991 Dekretuaren bidez -EHAA, 116. zk., 1991ko ekainaren 1ekoa-, eta Bermeoko eta Ondarroako (Bizkaia) eta Getariako eta Hondarribiko (Gipuzkoa) Portu Batzarren osaketa aldatzen duen Garraio eta Herrilan sailburuaren 1992ko urtarrilaren 13ko Aginduaren bidez -EHAA, 15. zk., 1992ko urtarrilaren 23koa- arautuak) eta Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa (maiatzaren 23ko 90/2000 Dekretu bidez eraturia -EHAA, 107. zk., 2000ko ekainaren 7koa- eta Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa aldatzen duen Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2001eko martxoaren 27ko Aginduak aldatua -EHAA, 76. zk., 2001eko apirilaren 23koa-); eta (3) etorkizunean kontsultarako eta erakundeen nahiz gizartearen parte-hartzerako beste erakunde batzuk, orokorrean, sortuko direla aurreikustea (horien artean, berariaz aipatzen da, bestelako zehaztasunik eman gabe, Portuko Udal Kontseilua).*

Ondorengo ataletan bereizita aztertu dira aipatutako antolamendu-gertakariak.

#### **C2).- KAIK erakundea**

##### **1).**- Dagokion izaera eta antolamendu-eragina (21. art.)

Proiektuak KAIK izeneko zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat (ZPEP) sortzen du, berezko nortasun juridikoa eta bere eginkizunak betetzeko ahalmen osoa dituen, eta portuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia; horrek, alde batetik, EAEko administrazio instituzionalaren eremua zabaltzen du, erakunde berri bat gehituz, eta aldi berean bertako sektore publikoa murrizten du, Euskadiko Kirol Portua S.A. sozietate publikoa desagerraraziko baitu (*espedienteari dagokion dokumentaziotik ondoriozta daitekeen moduan, ez baita esplizituki halakorik adierazten*), eta EAEko administrazio orokorraren bolumena murrizten du, bertako portuen arloa berregituratuko, edo murriztuko, baitu (*horrek Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egungo egitura organikoa aldatzea ekarriko du*).

Proiektatutako erakundea portu-azpiegituren kudeatzaile integral gisa zehaztu denez, eta araudi-proiektuak dakarren berregituraketa ondo uler dadin eta antolamenduan edo eginkizunetan errepikapenik ez dagoela egiaztatu ahal izan dadin, espedientean proiektatutako jarduketak dagokion sailaren egituraren izango duen murrizketa erako eraginari buruzko informazio zehatza barne hartu beharko luke. Eragina

izango du halaber, eta hori ere jaso beharko luke, honako erakunde hauetan: Euskadiko Kirol Portua S.A. sozietate publikoa (*bertako kapital soziala EAEko administrazioari dagokio oso-osorik*) eta Zumaiako Kirol Portua S.A. sozietate publikoa (*bertako kapital sozialaren % 51 EAEko administrazioari dagokio, eta gainerako % 49a Zumaiako Udalari*) eta El Abra-Getxo Kirol Portua S.A. partaidetzako sozietatea (*bertako kapital sozialaren % 33,25 dagokio EAEko administrazioari, eta gainerako % 66,75 Getxoko Udalari*).

## **2).- Justifikazioa**

Proiektuak KAIK erakundea Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginari (EONALTB) buruzko 1/1997 Legegintzako Dekretuan deskribatutako ZPEP gisa sailkatzen du (*15. artikulutik 18.era*), alegia, helburu gisa beren eskumenari dagozkion jarduerak gauzatzea (deszentralizazio bidez) duten eta zuzenbide pribatuari jarraitzen dioten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak bezalako erakunde gisa.

Ekimena sustatu duen sailaren memorietan honako arrazoiak jaso dira aipatutako erakundea sortzeko, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa (*deszentralizazio-erregimenean bere eskumenekoak diren jarduerak gauzatzen dituzten erakunde publikoak, baina funtsean zuzenbide pribatuari jarraitzen diotenak*): “Asmoa Euskal Autonomia Erkidegoko portu-azpiegitura guztien kudeaketa batzea da, eredu berri batean; eta horren arabera, administrazioaren ahala behar duten jarduerak zuzenbide publikoaren menpe egongo dira, eta, zuzenbide pribatuaren arauen eta printzipioen menpe, jarduera garatzeari eta portuen kudeaketari dagokion jardueraren gainerakorako hirugarrenekin duten harremanari dagokionez. Horrek, hasiera batean, orain arte EAEko administrazio orokorarentzat ahal eta jarduera horiek zekarten gastua murriztea ekarriko du, izan ere, diru-sarrerak hobeto kontrolatuko eta kudeatuko dira, portu bakoitzeko emaitzen kontuaren kontzeptua martxan jarriko delako, egiturak eta egoitzak sinplifikatu egingo direlako eta baliabideak (materialak eta giza baliabideak) optimizatuko direlako. Horrez gain, izapideak erraztu egingo dira eta gauzatutako jardueraren beharretara egokitzeko malgutasuna eta gaitasuna areagotzea ekarriko du”.

Honela dio sailaren azterketa juridikoaren txostenak: “erakunde berria sortzean zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa egitea erabaki izana baliteke, besteak beste, Auzitegi Gorenak, 2012ko maiatzaren 17ko sententzian, Euskadiko Kirol Portuak sozietate publikoak Bermeon gauzatutako jarduketari buruz hartutako jurisprudentzia erabakiaren ondorio izatea (2616/2009 kasazio-errekurtsioan emandakoa; 1356/2006 prozedura arruntean, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren aurrean).

Sententzia horrek Konstituzio Auzitegiak bere 102/2005 eta 121/2005 Sententzietan ezarritako doktrina jasotzen du eta, bertan, konstituzio-kontrakotasun alderdi batzuk daudela ikusirik, konstituzioaren aurkakotzat eta baliogabetzat jotzen ditu Estatuko portuei eta merkataritzako ontzidiei buruzko azaroaren 24ko 27/1992 Legearen 70. artikuluko 1. eta 2. atalak, berez ondare-prestazio publikoak diren eta, beraz, lege-erreserbaren printzipioaren menpe dauden portu-zerbitzuengatiko kontraprestazioak (tasak) "prezio pribatu" gisa sailkatzen dituztelako.

Hala, Auzitegi Gorenak baieztatzen du kasu honetan ere ezin dela ukatu zuzenbide publikoko araubideko jarduera edo zerbitzuak ditugula aztergai, zerbitzu edo jarduera horiek interesdunak nahitaez eskatu edo eman beharrekoak baitira eta ez baititu sektore pribatuak ematen edo gauzatzen. Modu horretan ondare-prestazio publikoaren kontzeptu zabalaren baitan sartu behar diren kontraprestazioak sortzen dira (EKren 31.3 art.).



*Beraz, portuko jabari publikoa erabiltzeagatik ordaindu beharreko kontraprestazioen tasen izaera zehaztu ondoren, diru-sarrera horien kudeaketa ezin zen sozietate publiko baten esku utzi, izan ere, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen 18.1 artikuluekin bat etorritik, "tasak kudeatu eta likidatzea honako hauei dagokie: tasa ordaintzeko betebeharra sortzen duen zerbitzua edo jarduera ematen edo egiten duten sailei, organismo autonomoei eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei".*

*Ildo horretan, sortu den erakundeari zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren izaera juridikoa eman izanak portuko jabari publikoaren kudeaketaz ardura dadila ahalbidetzen du, eta ondorioz, jabari horren erabileraren ondoriozko tasak kobra ditzala."*

Bulego honek, bere aldetik, lehenago Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko jarduerak, deszentralizazio-erregimenean, gauzatzeko erakunde bat sortu izanaren harira adierazi bezala, uste du *emaitza kalifikatzen duen formulazio baten aurrean gaudela; hau da, administrazioak, ikusita "nagusiki" zuzenbide pribatuari jarraitzen dion erakunde batek pertsona juridiko-publikoei (kasu honetan, administrazio orokorrekoak) dagozkien jarduerak gauzatzen dituela (funtzioei, helburuei, xedeari eta planteamenduari dagokionez), zuzenbide pribatuko erakunde publiko baten aurrean edo, contrario sensu, erakunde autonomo baten aurrean gaude, baldin eta aplikatu daitezkeen araudia nagusiki zuzenbide publikokoa bada, aipatutako ogasun-arauak zehazten duen moduan. Ogasunaren arloko legearen helburua ez da, beraz, aurrez ezarritako mota juridiko desberdinen katalogo batetik pertsonifikazio zehatz bat aukeratzeko ahalmena arautzea, erakunde instituzionalak era batera edo bestera sailkatzeko, ezta erakunde jakin baten zereginei zuzenbide publikoa edo pribatua esleitzeko ahalmena erregulatzea ere (hori lehendik ezarrita dago aztergai dugun arloa erregulatzen duen oinarrizko araudian; kasu batzuetan, ez dago eskuragarri legegile autonomikoarentzat, esaterako kontratazio publikoaren arloan, dagokion erakundeak aplikatu behar du), eta, ondorioz, nortasun bat edo bestea ematea, nahi bezala. Alderantziz da: lege honen bidez, erakundearen egungo zereginetan zuzenbide publikoa nagusi bada (edo berehala egingo direnetan; ez etorkizunekoetan, legeak kalifikazioa alda baitezake hori esleitzeko baldintzak aldatzen direnean) izaera juridiko bat emango zaio eta, bestela, beste bat. Argiago esanda, kontua da aztertzea ea zuzenbide pribatuko erakunde publiko baten aurrean edo erakunde autonomo baten aurrean gauden, bere zereginei aplikatu dakiekeen zuzenbidearen arabera (horiek funtzionalak diren edo prestazioei dagozkien kontuan izan gabe).*

Beraz, puntu hau erabakigarria da, izan ere, erreferentziazko araudirik ez dugula eta, ezin izan dugu KAIK erakundearen kalifikazio instituzionala erraztuko luketen beste kalifikazio-irizpiderik erabili; izan ere, oraingoz EAEko administrazioak ez dauka, ogasunari buruzko arautik haratago (noski, arau honek dagozkion gaiak besterik ez ditu erregulatzen, alegia, EAEko ogasun orokorrari dagozkionak), erakunde horren egitura erregulatuko duen arau instituzionalik edo antolamenduari dagokionik, estatuko zuzenbidean edo beste autonomia erkidego batzuetan ez bezala. Alabaina, hori horrela, aipatutako emaitza-irizpidearekin batera oro har onartutako administrazio-logikako irizpideak (gaur egun orokorrean onartuta daudenak) aplikatu behar izanez gero, seguruenik hauek izango lirateke alderdi erabakigarrienak: prestazioek eta zerbitzuek kontraprestazioa edo prezioa edukitzea; merkatuan esku hartzea, ondasun- eta zerbitzu-

ekoizle gisa, sektore pribatura irekitako sektore ekonomikoetan; eta garrantzi gutxiagoko beste batzuk.

Bulego honen ustez, proiektuak erakundearen esku uzten dituen helburuak (22. art.: *Euskal Autonomia Erkidegoko portuen kudeaketa integrala, baita portuko zerbitzuen plangintza eta programazioa ere, zerbitzu publikoaren printzipioen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko garapen iraunkorreko eta gizarte- eta ekonomia-koehesioaren eskakizunekin bat etorriz; portuko azpiegiturak eraikitzea, baita azpiegitura berri horiek kontserbatzea, kudeatzea eta administratzea ere; portuko zerbitzuak ematea, objektibotasun, gardentasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioak errespetatuz; eta Europar Batasunean helburu berak dituzten erakundeekin batera lan egitea*) eta zereginak (*denak publikoak eta, kasu gehienetan, agintaritza dakartenak – 23. art.–*) ez datoz kontzeptualki bat erakundeak *nagusiki zuzenbide pribatuari jarraitzeko betebeharrarekin (hala ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bategineko 15. artikulua, erakunde publiko bat zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzeko)*. Hori guztia kontuan hartuta, beharrezkoa da zehaztutako helburu publikoak betetzeko erakunde deszentralizatu bat sortzeko beharra zehatz-mehatz aztertzea eta behar bezala justifikatzea, baita helburu eta zeregin horietarako lege ezarritako tipologiaren artean aukeratutako pertsonifikazio juridikoaren egokitasuna aztertzea ere. Ildo horretatik, espedientean, eraginkortasun-arrazoiei eginiko erreferentzia orokorraz gain, eta gastuen murrizketaren aurreikuspenaz gain (behar bezala zehaztu gabea), ez dago daturik behar bezala justifikatzeko proiektatutako dekretuak jasotzen duen formula aukera guztien artean egokiena dela sailak arlo honetan egingo duen politika eraginkorragoa izango dela bermatzeko (*gutxienez, oraingo egituren bitartez lortutako mailetan*), ezta maila horiek aztergai ditugun helburuetara eta eginkizunetara hobeto egokituko liratekeen beste kudeaketa formula batzuekin lortzea ezinezkoa litzatekeela frogatzeko ere (*administrazio orokorraren eta bere sail-egituren bidez, edo bulego honen ustez egokiagoa litzatekeen beste deszentralizazio-formula batzuen bidez, esaterako, erakunde autonomoarena*).

### **3º).- Edukia [19.-26. art.]**

EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginak barne hartzen duen erregulazioak ez dio ezartzen eduki zehatzik sortutako legeari (*zuzenbide pribatuko erakunde publikoak hala kalifikatu behar direla espresuki adierazi besterik ez du egiten*); alabaina, eduki hori eratzeko balio izan dezake, kontuan hartu beharreko kongruentzia-parametro gisa, Gobernu Kontseiluak 2014ko irailaren 16an onartutako Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuak (*organo horrek berak onartu beharko du hemen aztergai dugun aurreproiektua*), honela zehazten baitu bere 39.2 artikuluan:

*“Dagokion erakundearen sortze-arauak eduki hau izango du, gutxienez:*

*a) Zelan pertsonifikatzen den erakundea, zein izaera juridiko duen, eta Administrazio Orokorreko zein saili atxikitzen zaion.*

*b) Zein den erakundearen izena eta egoitza.*

*c) Zer helburu edo interes orokorrerako sortzen den, eta zer funtzio gomendatzen zaizkion; beren-beregi adierazi beharko da zer administrazio-ahal bete ahal dituen.*

*d) Zer gobernu-organo dituen, eta zeintzuei gomendatzen zaizkien kontsulta-funtzioak, halako funtziorik gomendatzen bazaie; organoak kide bakarrekoak ala anitzekoak diren; zer prozeduraren bidez izendatzen diren kideak, eta nola banatzen diren funtzioak kideen artean.*

e) Zertan oinarritzen den erakundearen egitura organiko eta administratiboa, eta zeintzuk diren zuzendaritzako postuak. Zehaztu egin beharko da zer funtzio gomendatzen zaien postu horiei, eta zein balore juridiko daukaten haien egintza eta ebazpenek; era berean, adierazi beharko da egintza eta ebazpen horietatik zeintzuk agortzen duten administrazio-bidea.

f) Zer araubide juridiko zehatz aplikatu behar zaien, hala badagokie, ekonomia-finantzen araubideko gaiei eta giza baliabideei.

g) Zer langile eta ondare atxikitzen zaion erakundeari, eta zer baliabide ekonomiko dituen funtzioak betetzeko.

h) Zein den erakundea azkendu eta kitzatzeko prozedura.”

Parametro horren kontraste gisa, lotutako elementu batzuk falta direla adierazi behar da: (1) ez du erakundearen egoitzari buruzko estipulaziorik barne hartzen, (2) ez da Administrazio Kontseiluaren osaerari eta bertako kideak izendatzeko prozedurari buruzko ezer ezartzen (*zeregin horien beranduagoko araudi batean zehazteko utzi dira*), (3) ez du erakundeari esleitutako zereginen banaketa, Administrazio Kontseiluaren eta bertako Zuzendaritzaren artekoa, jasotzen, (4) ez du erakundera atxikitako langileei eta ondareari buruzko estipulaziorik barne hartzen, (5) ez du erakundea desagertzeko eta likidatzeko prozedurari buruzko ezer zehazten. Aipatutako gabeziak zuzendu egin beharko lirateke, kontuan izanda egoitzak izendatzeari buruzko lege-erreserbaren espedienteak barne hartzen duen azterketa juridikoaren txostenean egoitzaren izendapenari buruz esandakoa.

#### **4).- Zereginak** (23.art.).

Erakundeari dagozkion zereginen artean (*aurkeztutako testuaren 21. art.; j) letra*), “bere eskumeneko arloekin zerikusia duten diru-laguntzak ematea” dago.

Eseipen horri dagokionez, adierazi behar da, EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 48.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek diru-laguntzak eman ahal izango dituztela, betiere, diru-laguntza horiek publizitate-, lehiaketa- eta objektibotasun-printzipioei jarraituz ematen badituzte. Bere izaera juridikoarekin bat datozen heinean, honako paragrafo hauetan zehaztutakoa aplikatu beharko da: 49. artikuluko 3., 10., 11. eta 12 paragrafoak; 50. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoak; 51. artikuluko 1. paragrafoa; eta 53. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak. Erakundearen estatutuei edo hori sortzeko arauari jarraituz, eskumena duten organoei egokituko zaie oinarri arautzaileak onartzea eta laguntzak ematea, eta aipatutako oinarriak EHAAAn argitaratzen direla bermatuko da. Hori dela eta, ondoriozta daiteke EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak ez diola zuzenbide pribatuko erakunde publiko bati ere (ez bere 48.5 artikuluan ez besteren batean) diru-laguntzak emateko eskumenik aitortzen; aldiz, beren eratze-arauan edo gizarte-estatutuetan halako eskumenak aitortuta dituzten erakundeek beren jarduketa arautzen duten nahitazeko agindu jakin batzuk betetzen dituztela egiaztatzen du.

Hori ikusita, eta proiektatutako erakundearen diru-laguntzak emateko ahalmena jasotzen duten puntuak kontuan izanda, ondorioztatu behar da ahalmen hori bere eskumeneko arloetako diru-laguntzak ematera mugatzen dela, baina ezin izango duela diru-laguntzen deialdirik onartu edo kudeatu, ez baitzaio halako zereginik esleitzen. Ahalmen hori erakundearen aurrekontuetan gehienezko zenbateko bat esleituta duten

berriazko diru-laguntzetara, eta onuradunen muga zehatza, bakarra eta baztertzaila ezarrita dutenetara (alegia, izendun diru-laguntzak ematera).

Bestalde, kontuan izan behar da diru-laguntzak zuzenean emango dituen salbuespenezko kasuren batean, deialdi bat egin ezin izango duenez, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari egokituko zaiola (erakundea atxikita dagoen saileko titularrak proposatuta) horien emakida Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea (*zenbatekoa, helburua eta onuradunak adierazi behar dira*), diru-laguntza justifikatzen duten interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko justifikazio arrazoitua eta memoria dokumentala espedientean sartuta, eta baita sei hilez behin Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari jakinaraztea ere.

**5º).- Araubide juridikoa [24. art.].**

Proiektatutako erakundeari aplika dakioken konfigurazio egoki bat lortze aldera, komenigarria litzateke estipulazio bana gehitzea: bat orokorra, zergen arloko indarreko zuzenbide publikoarekiko loturari buruzkoa (aurrekontuen, diru-laguntzen, kontrol ekonomikoaren, ondarearen eta kontratazioaren araubidea); eta beste bat espezifiko, kontrol- eta kontabilitate-araubideari lotua, honelakoa edo antzekoa:

*“Euskal Herriko Ogasun Orokorraren gai propio guztietan, Autonomia Erkidegoan aplika daitekeen araudiak zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez xedatutakoari lotuko zaiola. Kontrol ekonomikoa, berriz, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak gauzatuko du, ekonomia-finantzen eta kudeaketaren kontrol iraunkorreko modalitateari jarraituz, EAEko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legean eta hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat etorritik.”*

Aipatutako kontrola EAEko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen III. tituluko II. kapituluan dago araututa (17.-20. art.) eta helburu hau du: a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta erakunde-administrazioaren finantza- eta ekonomia-kudeaketa, berau osatzen duten erakunde, zerbitzu eta atalen finantzen nahiz ekonomiaren jokabidea arautzen duten xedapen eta jarraibideetara eta kudeaketa mamitzen duten arauzkotasun-, legezketasun-, eraginkortasun-, emankortasun- eta ekonomia-hastapenei egokitzen zaiela egiaztatzea, eta b) Kontrolpeko erakundeen kontabilitateak eta finantzen eta ekonomiaren informazioak haien finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoeraren isla fidagarria agertzen dutela eta xedapen eta hastapen ezargarriei egokitzen zaizkiela egiaztatzea. Kontrol ekonomiko-finantzarioko eta kudeaketa-kontrolleko txostenek kontrolatzen diren erakundeen kudeaketa hobetzeko beharrezko diren gomendioak erantsiko dituzte.

Aipatutako Legearen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontrol hori ikuskaritza-tekniken bidez gauzatuko da, eta horiek kudeaketa-ikuskaritzak, finantza-ikuskaritzak, aurrekontuak eta legezketasuna betetzen direla egiaztatzen dutenak eta ikuskatutako erakundeen prozedurak eta barne-kontrola berrikustea helburu dutenak izan daitezke. Kontrolaren izaera iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 12. artikuluan dago araututa; horren arabera, kontrol hori garatzeko beharrezkoak izan daitezkeen jarduerak eta lanak etenik gabe egingo dira

hurrengo ekitaldietan zehar, eta kontrolatu nahi diren jardueren edo ekintzen garaikideak izan beharko dute, ahal dela, jarduera horiek. Horrez gain, artikulua horren arabera, kontrolatu nahi den jardueraren argibide eguneratuak eta zehaztuak jasoko ditu Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, argibide horiek ahalik eta ondoen ezagutzeko. Bulegoak berak finkatuko du jasotzeko era eta aldizkakotasuna.

Kontabilitateari dagokionez, Kontabilitateko Plan Orokorrari eta hori garatzen duten xedapenei jarraituko die, baita merkataritza-araudian jasotako kontabilitate-printzipioei eta arauiei ere, 14/1994 Legearen 6.3 artikuluan jasotakoaren arabera. Kontabilitatearen kudeaketa bere organoen arabera egingo bada ere, erakundearen estatutu sozialek ezartzen dutenari jarraituz, erakundea Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontabilitate-kontrolaren menpe egongo da, eragiketa guztiak kontabilitatean islatzen direla bermatze aldera (*13. art., aipatutako EAEko ekonomia-kontrolaren eta kontabilitatearen ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 6.1 artikulua*ren harira).

**6).- Antolamendua** (24. art.).

Aurreko 3. puntuan adierazitakoari jarraituz, Administrazio Kontseiluaren osaera eta bertako kideak izendatzeko prozedura ezarri beharko lirateke, baita Administrazio Kontseiluaren eta erakundeko Zuzendaritzaren artean erakundeari esleitutako zereginen banaketa ere.

Komenigarria litzateke araudi bidez zehaztuko den Administrazio Kontseiluaren osaeran bermatzea ogasunaren arloan eskumena duen Saileko ordezkari bat egongo dela, lege-aurreproiektuaren bidez sortutako zuzenbide pribatuko erakunde publiko berriaren helburuak barne hartzen dituen ondare- eta ogasun-alderdien garrantzia kontuan izanda.

**7).- Langileak** (26. art.).

Aurreko 3. puntuan adierazitakoaren harira, gehiago zehaztu beharko lirateke erakundeak barne hartuko dituen langile funtzionarioen eta kontratatuen administrazio-egiturak eta lanpostuak.

Bestalde, espedientean ez dago justifikatuta zergatik ez diren zehazten Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 25.1 artikuluan jasotako publizitate- eta berdintasun-printzipioak hautaketarako eta langileak erakundera sartzeko prozesuak zuzendu behar dituzten printzipioen artean.

Atal honekin lotura duten gainerako alderdiei dagokienez, bulego hau espedienteak barne hartzen duen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostenari lotzen zaio.

**8º).- Baliabide ekonomikoak** [27. art.].

Erakundearen baliabide ekonomikoen artean, araudi-proiektuak honako hauek aipatzen ditu: portuei dagozkien zergak biltzetik (*f letra*) eta zehapenetatik jasotako (*g letra*) diru-sarrerak.

Ildo horretan, nabarmendu behar da bi diru-sarrera motak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartzen direla

(*Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 32. art., b) eta g) letrak*), eta erakunde titularraren betebeharrak finantzatzeko erabili behar direla, diru-sarrera bakoitzaren araudi espezifikoak aurkakorik adierazi ezean (*Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 41.1 art.*).

Aztergai dugun testuak "zergei" egiten dien erreferentziari dagokionez, kontuan izan behar da EAEko portuen arloko zerga bakarrak Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasuneko portuetan ematen diren zerbitzuengatik tasak direla (*gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoari buruzko Legearen X. tituluko I. kapituluaren 192.-197. art.- araututakoak; lege horren testu bategina irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartu zuen eta aztergai dugun araudi-proiektuak aldatuko luke, bertako, azken xedapenetatik lehenengoaren bidez*), eta, beraz, egokiagoa litzateke "tasei" buruz hitz egitea. Bestalde, orain arte portu-zerbitzu baterako ere prezio publikorik ezarri ez bada ere, baliteke etorkizunean ezartzea. Hori guztia kontuan hartuta, 27. artikuluko e) letraren idazketa aldatzea eta hau sartzeara proposatzen da: *portuen arloko tasak biltzearen eta prezio publikoak kobratzearen ondoriozko diru-sarrerak*.

Proiektatutako legean tipifikatutako arau-hausteen ondoriozko zehapenak aplikatuz ateratako baliabideen kasuan, kontuan izan behar da proiektuak baliabideak ematen dituzten zehapenak ezartzeko ahalmena honako erakunde hauen artean banatzen duela (horretarako justifikaziorik eman gabe): Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra eta Legeak berak sortzen duen KAIK zuzenbide pribatuko erakunde publikoa. Lehenengoari ematen dio arau-hauste oso larrietarako zehapen-eskumena (*proiektuaren 52. artikuluari buruzko 5.d) art.*), eta bigarrenari gainerako kasuetarako eskumena (*52. artikuluari buruzko 23 e) art.*). Komenigarria litzateke esplizituki zehaztea ea 27. artikuluko f) atalak aipatzen dituen zehapenetatik ateratako diru-sarrerak erakundeak gauzatutako zehapen-ahalmenaren ondoriozkoak diren, edo eskumena duten subjektu guztien jarduketaren ondoriozkoak (*administrazio orokorra barne*). Horren justifikaziorik ez dagoenez, 27. artikuluko f) letra aldatzea eta honako hau sartzeara proposatzen da: *erakundearen eskumenerako zehapenak ezartzetik ateratako diru-sarrerak*.

Erakundeari diru-laguntzak emateko ahalmena esleitzen zaionez (*aurreko 4. puntuan aztertutako baldintzetan*), erakundearen baliabide ekonomikoen artean erakundeak emandako diru-laguntzen kopuruak itzultzearen ondoriozko diru-sarrerak barne hartzea iradokitzen da (diru-laguntza horiei zegokien helburua edo eskuratzeko baldintzak ez betetzeagatik).

Legearen arabera esleidi dakizkiokeen beste edozein baliabideri buruz g) letrak jasotzen duen itxiera-aurreikuspenari dagokionez, gomendatzen da, zehatzago ager dadin, lege dagozkion beste baliabide batzuei erreferentzia egitea; izan ere, erakundearen helburuak betetzeko benetan esleitutako baliabideak bakarrik erabili ahal izango baititu, ez horien esleipena posible bada ere azkenean esleitzen ez zaizkionak.

#### **9).- Aurrekontuak** (28. art.).

Erakunde publikoaren aurrekontuak Euskadiko aurrekontu orokorretan sartzeko, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginako 2.2.c) artikuluan (EALTB) ezarritakoaren arabera, baina lege horrek ezartzen dituen ezaugarriak



eta salbuespenak betez; zehazki, 8.2 artikulua honela ezartzen du: *zuzenbide pribatuko erakunde publikoen aurrekontuek ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren zuzkidurak, inbertsioen eta finantziarioaren zuzkidurak, bai eta gerorako konpromisoen egoera-orria ere jasoko dituzte.*

Hasiera batean, aurrekontuen egitura aurrekontuen arloko eskumeneko sailak ezarriko du EALTBren 35.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, baina erakunde publikoari egokituko zaio horiek beren berezitasunen arabera garatzea. Dena dela, aurrekontuen egiturari eskainitako EALTBren III. titularen V. kapituluaren arabera (51.-56. art.), eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan sartze aldera, ustiapen- eta kapital-aurrekontuak egin beharko lirateke, aipatutako kapituluaren adierazten den moduan, eta baita etorkizuneko konpromisoen egoera ere. Horrez gain, honako dokumentu hauek ere sartu beharko lirateke: aurrekontu-ekitaldiaren amaierarako aurreikusitako finantza-egoerak, aurreikusten diren galeren eta irabazien kontua, eta aurreikusitako finantziario-koadro bat. Horiek guztiak Kontabilitate Plan Orokorraren eta hori garatzen duten xedapenen arabera egin beharko dira.

Era berean, EALTBren V. tituluko VIII. kapituluak, aurrekontu orokorrak aldatzeko araubideari buruzkoak, besteak beste zuzenbide pribatuko erakunde publikoei zuzendutako araubide espezifikoa ezartzen du (97.-99. art.). 97. artikulua arabera, erakunde publikoen ustiapen- edo kapital-aurrekontuetako aurrekontu-aldaketatzat joko dira 54.2 artikulua arabera mugadun diren kontzeptuen zenbatekoetan egindako aldaketa guztiak: finantza-inbertsioak, langile-gastuak, besteren baliabideak, transferentzien eta eman beharreko diru-laguntza arrunten eta kapitaleko diru-laguntzen batura eta ibilgetu material eta ukiezinean egindako inbertsioen batura.

Artikulu beraren arabera (97. art.), aurrekontu-aldaketak gertatzen badira, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak baimenduta egon beharko dute (*eragindako sailak proposatuta*), erakundearen helburuetan ere aldaketak ekartzen dituen izan ezik; kasu horretan, Jaurlaritzak onartu beharko ditu, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak proposatu ondoren. Aipatutako sailaren alde aurreko baimena behar da, halaber, eragiten dioten erakundearen aurrekontu-aldaketak administrazio- edo sozietate-berrantolaketen ondoriozkoak direnean. Bestalde, Jaurlaritzari dagokio gerorako konpromisoen egoera-orria handitzea, *konpromiso berriak onartuz edo baimendutako zenbatekoa handituz, erakunde guztientzat hasieran baimendutako konpromisoen zenbateko globalaren % 15era arte, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren eta, hala badagokio, kapitulu honetan aipatzen diren erakundearen organo arduradunaren proposamenez*. Hiru hilez behin, baimen horien berri emango zaio Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak esleitu ahal izango zaizkio erakundeari, eta dagokion Jaurlaritzako sailaren aurrekontu-atalean sartuko dira (*kasu honetan, portuen arloko eskumena duen sailean*). KAIK zuzenbide pribatuko erakunde publikoarentzat EALTBren 15. artikuluan ezarritako zorpetze-sarrerak izango lirateke (*hau da: aipatutako sailetik jasotzen dituzten transferentzia eta diru-laguntza arruntak, eta beste edozein erakunde edo pertsona emandakoak, erakundearen jardunaren adierazpen diren diru-sarreraren egoera-orrian sartuko dira. Jasotzen dituen kapital-transferentziak eta -laguntzak kapital-eragiketa finantzatzeko diru-baliabidetzat hartuko dira, jardueren emaitzetan eraginik izan gabe, salbu eta hartutako*

*funtsak beste pertsona edo erakunde batzuei kapital-laguntza emateko edo kapitala eskuratzeko izan badira.*

Horrez gain, EALTBren 21. artikulua ezartzen du transferentzia arruntei dagozkien ordainketa-kredituek galerak finantzatzeko diru-laguntza izaera dutela erakunde hartzaileentzat, beraz, ekitaldia ixten denean erakundeak irabaziak izan baditu funts horiek jaso izanaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio.

**10º).- Ondarea, eta erakundea desagerrarazteko eta likidatzeko prozedura.**

Aurreko 3. puntuan adierazitakoari jarraituz, erakundearentzat ezarritako erregulazioan bere ondareari buruzko alderdiak eta erakundea desagerrarazteko eta likidatzeko prozeduraren zehaztasunak sartu behar dira.

**11º).- Kontuan hartzeko beste alderdi batzuk [21.2 eta 25.4 art., eta 3. xedapen gehigarria].**

Proiektuak (21.2 eta 25.4 art.) aurrerago antolaketa-egituraren araudia eta erakundearen funtzionamendu-araubidea garatzearen beharrari buruz ezartzen duena (estatutuak onartzen dituen Jaurlaritzaren dekretuaren bidez) bat dator Gobernu Kontseiluak onartutako administrazio publikoaren lege-proiektuan ezarritakoarekin (39.3 art.), aurreko 3. puntuan adierazi bezala. Proiektu horrek zehazten du, halaber, erakundearen estatutuen helburu bakarra izango dela bere antolamendua eta funtzionamendua zehaztuko dituzten eratze-legearen edukiak garatzea.

Horrez gain, lege-proiektu horrek honela dio (39.4 artikulua): *Eratze-legeak aurreikusiz gero erakundeak gobernu(...)-organoren bat izan behar duela eta organo horrek kide anitzekoa izan behar duela, estatutuen aurreproiektua informazio eta kontsultapean jarriko da organo horrek lehenengo batzarra egiten duenean, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu baino lehenago.* Aztergai dugun proiektuak sortutako erakundearentzako gobernu-organo kolegiatu bat ezartzen duenez (Administrazio Kontseilua, 25.2 art.), komenigarria litzateke Eusko Jaurlaritzak erakundearen estatutuak onartzeko aurreikuspenari estipulazio bat gehitzea, aurreproiektua onartu aurretik estatutuek organo horien kontsiderazioa eta txostena jasotzeari buruzkoa (Kontseiluaren lehen bilkuran).

KAIKAK zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren jardueren hasierari buruzko 3. xedapen gehigarriak honakoa zehazten du: *Jaurlaritzak aginduko du KAIK erakunde publikoaren benetako sortzea eta haren jardunaren hasiera, erakundearen estatutu sozialetan arauz ezarritako egunean.* Zehaztu behar da *benetako* sorrera hori sortzen duen legea (21.1 art.) indarrean sartzen denean (azken xedapenetatik 3.a) gertatutako dela; alabaina, ez du esan nahi erakundea orduan hasiko denik jarduerak gauzatzeko, normalean sortu baino beranduago hasten baita (*bere gobernu-organoak sortu eta bere funtzionamendua erregulatzen duen araudia onartu ondoren*). Bestalde, ez du logikarik estatutu sozialek zehaztu behar izateak Jaurlaritzak zein egunetan eman behar dien hasiera erakundearen jarduerari. Hori dela eta, xedapen gehigarriko lehen paragrafoaren ordean hau idaztea proposatzen da: *KAIK erakunde publikoaren jardueren hasiera Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez zehaztuko da.* Hala, jardueren hasiera-data zehaztea egokitzat jotzen bada, erakundearen estatutu sozialak onartzen dituen dekretuan bertan zehaztuko da, eta egokitzat jotzen ez bada, jardueren hasiera beste dekretu espezifiko batean zehaztuko edo adieraziko da, estatutuak onartzen dituen ez den batean.

Beste kontu bat da egokitzat har daitekeela legearen bitartez erakundea martxan jartzeko denbora-aldi bat zehaztea (kasu horretan, legean bertan ezarri beharko litzateke).

### **C3).- Itsas Garraioko Enpresen Erregistroa [IGEE]**

Aipatutako atalean zehaztutako zuzenbide pribatuko erakunde publikoaz gain, aztergai dugun proiektuak (43. art.) administrazio-erregistro berri baten sorrera ezartzen du. Bertan, proiektuak berak erregulatzen dituen itsas garraioko zerbitzuak gauzatu aurretik, enpresa operadoreak (*salgaiak garraiatzen dituztenak, bidaiariak garraiatzen dituztenak edo mistoak*) eta emango dituzten zerbitzuen baldintzak inskribatu beharko dira.

Aurkeztutako testuak egiten duen erregistro horren erregulazioari dagokionez, nabarmendu behar da Lehiaren Euskal Agentziak (LEA), 2014-11-18an onartutako txostenean, honela zehazten duela: *“LEA-ko uste du EAEko puntuen edo portuen arteko pertsonen, salgaien eta garraio mistoen zerbitzua emateko aurrez erregistroan inskribatu beharra sarrerako oztopo bat dela, erabat premiagabekoa, eta ez dela proportzionala; eta, horrenbestez, hain murriztailea ez den neurri batez ordeztu behar dela”*. Horrez gain, *“aurrekoa alde batera utzi gabe, erregistro batean sartzen diren informazioek benetan lortu nahi diren interes orokorreko helburuetarako lagungarriak izan behar dute. Inola ere ez litzateke sartu behar tarifei eta baldintza ekonomikoei buruzko daturik”*, eta egiaztatu behar litzateke espedienteak ez duela kontsiderazio horiek erantzun gabe uzteko eta erregistroaren erregulazio proiektuari bere horretan eusteko (hasieran proposatutako baldintzetan) arrazoiei buruzko informaziorik.

Bere aldetik, bulego honek uste du proiektatutako erregulazioa ez dagoela behar bezala osatuta, lege-ezarpenera behar duten hainbat alderdi garrantzitsu desbideratu egiten dituelako, esaterako, inskripzioarako baldintzen eta horren eraginaren zehaztapena.

Bestalde, testuan erregistroa barne hartuko duen administrazio-erakundeari eta atxikitzen den organoari (*kudeaketaren arduraduna*) buruzko erreferentziarik ez dagoela egiaztatu dugu.

Azkenik, enpresa operadoreentzat aurrez erregistroan inskribatzeak duen garrantzia kontuan hartuta, proiektatutako erregulazioan dagokion araudia garatzeko eta martxan jartzeko epe bat zehaztea falta da.

### **C4).- Beste organo batzuk (aholku-emaileak eta parte-hartze instituzional eta sozialekoak).**

Espedienteak barne hartzen duen dokumentazioa, aurkeztutako testua eta lehendik dauden aurrekariak aztertuz gero, ondorioztatzen da, portu- eta itsas arloan dauden interes guztiak kontuan hartuta (*instituzioenak, administrazioenak, beste departamentu batzuenak, edo erakunde pribatuenak*), eskumeneko administrazioa bultzatu behar dela administrazio-istantzia horien eta hartu behar diren erabakietan zerikusia duten gainerako erakundeen ahalik eta parte-hartze handiena lortzera, eta parte-hartze hori ahalbidetzeko beharrezkoak diren bitartekoak eskuragarri jartzera, formula organikoak erabiliz (*aholkularitza- eta partaidetza-organoak sortzea*).

Alabaina, aurkeztutako testuak bere 4. artikuluan hori ezartzen badu ere, orokorrean egiten du, organo horiek sortzeko araudiaren garapenari erreferentzia eginez; ezarpen indargabetzaileei dagokienez (*xedapen indargabetzaile bakar batean bildu beharko lirateke*), Legea indarrean sartzearekin batera, ezabatu egiten du une honetan dagokigun arloko administrazio-jarduketarako interesetan parte hartzen duten organoak, alegia, Portu Batzarrak eta Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa (*azken horri dagokionez, gainera, sortze-arauan bertan zehazten zen EAEko Portuen Legea indarrean sartu arte iraungo zuela*). Beraz, legea behar bezala garatu arte, ez da interes horiek ordezkatzeko dituen inolako parte hartzeko biderik izango.

Hori ikusita, aholkularitza- eta partaidetza-organoei beren horretan eusteko aukera hausnar dadila iradokitzen da, ordeztuko dituzten beste organo batzuk sortu arte, eta eskumeneko administrazioak organo horiek ezartzeko epe bat zehaztu dadila.

**C5).**- Oro har, esan genezake aztertu dugun proiektuak ez dituela aldaketa gehiago eragiten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren antolaketa-egituran (ezta haren erakunde autonomoetan, eta harekin zerikusia duen sektore publikoaren barneko erakundeetan ere).

#### **D).- Ogasunari eta finantza- eta ekonomia-araubideari loturiko alderdien eragina**

Lehenik eta behin erreparatu behar zaie proiektuak ekar ditzakeen ondorioei, ogasunean eta ekonomia- eta finantza-araubidean, hau da, Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan. Gai horiek zehaztuta daude azaroaren 17ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bateginaren EONALTB- 1.2 artikuluan (*ondare-erregimena, aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-jarduerak bete behar duen kontrol- eta kontabilitate-sistema, kontratazio-erregimena, Diruzaintza Nagusiaren erregimena, tributuoak eta bestelako diru-sarrera publiko eta pribatuak, zorpetze-erregimena, bermeak emateko erregimena, laguntzak eta diru-laguntzak emateko erregimen orokorra, Autonomia Erkidegoak bere Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan dituen eskumenen erregimena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eskubideekin eta betebeharrekin zerikusia duen beste edozein erregimen*).

Ildo horretan, ondoriozta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari dagozkion arloei (EAEko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Testu Bateginaren 1.2 artikuluan identifikatutakoak) sorrarazitako eragina honako atal hauetan ikus daitekeela gehienbat: ondare-araubidea, administrazio-kontratazioa eta zergen nahiz zuzenbide publikoko eta pribatuko gainerako diru-sarreraren erregulazioa.

Horri lotuta, aipatu behar da espedienteak arlo bakoitzean espezializatutako instantzien txosten bana barne hartzen duela (*2015-02-23ko txostena, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarena; 2015-02-23ko txostena, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrarena; eta 2015-02-16ko txostena, Zerga Administrazio Zuzendaritzarena*). Oro har, txosten horiek barne hartzen dituzten oharrak eta gogoetak kasu batzuetan bulego honen esku utzitako testuan bertan erantzun dira (*hala pentsa daiteke, espedienteko A2) d) eta B1) ataletan horri buruzko informaziorik agertzen ez delako*). Bestalde, esan behar da bulego hau bat datorrela aipatutako txostenetan emandako iritziekin.

## **E).- Eragina ekonomian eta aurrekontuetan**

Atal honetan, aipatu behar da aztergai dugun espedientea osatzen duen dokumentazioaren azterketatik ondorioztatu behar dela araudi-proiektu honek eragin berezia izango duela Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren ekonomian eta aurrekontuetan, bai gastuetan bai diru-sarreretan.

### **1).- Gastuei dagokienez:**

Gogorarazi behar da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 2003ko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 10.3 artikulua hau ezartzen duela: *“Era berean, espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du”*; gogorarazi behar da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 43. artikulua zehazten duena: *“Ekonomi eta araubidezko kontrola, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko organo eta erakunde guztien sorrerak eta ezabaketak ekonomiaren eta antolakuntzaren aldetik ikuskatzea, eta baita organo eta erakunde aldaketak eta berregituraketak ere) 26. ataleko 2. lerroaldian aipatzen dena bezalakoa izan dadinean, aplikagarriak izan daitezkeen atal horretako 1. idatzatian aipatzen diren idaztatietan jasotzen direnak hartu beharko ditu kontrol horrek eta horiei buruzko iritzia eman ere bai. Honako hauek ere jaso beharko dira, hau da, proposamenaren gai izan den antolaketaren arrazionalitatea, zerbitzuen koste, errendimendu eta emankortasunaren gain kontrolak izango dituen ondorioak eta eragina”, eta ondorio horietarako “...honako hauek ere bidali beharko dira: a) Izaikia edo organoa sortze edo, hala behar bada, aldatze eta birregituratze beharra edo horren egokitasuna justifikatzea, era honetan, burutu behar diren edo horietan sartuko deneko programa ekonomiko eta aurrekontu mailakoak bete ahal izateko; b) Erabili beharko diren giza baliabideen prebisioa, horien soldata, kostu eta eraginpean geldituko diren medio materialen deskripzioa. Ohiko gastua edo kapital mailakoa ekar dezaketen medioen arteko bereizketa egin beharko da; c) Jarduketaren kostuari eta zerbitzuen errendimendu edo utiltasunari buruzko ikerketa ekonomikoa. Hala behar izan dadinean, lau urterako Plan Ekonomikoa ere bai”*. Horrez gain, *“xedapenaren helburua, sozietate, elkarte edo entitatereen bat sortzea edo horietakoren batetan parte hartzea izan dadinean, dadina dadila horien izaera juridikoa, honako hauek jasoko dituen justifikazio-memoria bidali beharko da: entitate berriaren jarduna garatuko deneko inguru ekonomikoari buruzko informazio orokorra eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak parte hartzea justifika dezaten ekonomi-entpresa, gizarte-kultura edo strategi-politika mailako arrazoiak alegia.// Entitate hori sortzeaz edo horretan parte hartzeaz lortzea nahi deneko eta ertain mailako denboraldiaren barruan kuantifikagarriak diren helburuak definitu beharko dira. Horiek betetzeko bideak eskainiko dituzten indikatzaileak ere finkatu beharko dira, nahiz objektiboak, nahiz subjektiboak.// Honako informazio hauek ere emango dira: entitatearen helburuak, Eusko Jaurlaritzaren partaidetza-portzentaia, beste partehartzaile batzuri buruzko zehaztasunak eta horien partaidetza-portzentaia, inbertsio proiektuak,*

*errentabilitatearen analisi ekonomiko eta soziala, proiektuaren azterketa, kapital eta ustiaketa aurrekontuen ikerketa, aurreikusgariak diren finantza-egoerak, aurreikusita dagoen zordunketa eta proposamena erabat ezagutzeko bide emango duten beste elementu eta agiri batzuk.*”

Espedientean sartutako dokumentazioa ez dator guztiz bat adierazitako zehaztapenekin; izan ere:

KAIKAK zuzenbide pribatuko erakunde publikoari dagokionez, ez du behar diren giza baliabideei buruzko behar bezala eguneratutako datuen informazio osaturik (*2013an Portuen Zuzendaritzak esleituta zituen langile funtzionarioen nahiz kontratudunen soldaten eta Gizarte Segurantzaren gastuei egindako erreferentzia bat besterik ez du jasotzen, kontzeptu horientzako urteko % 2ko igoera aurreikusita*), ezta erakunde berria martxan jartzeko baliabide materialei buruzkoa ere (*egoitza kokatzeko higiezinak eskuratzeko gastu berriei aurre egiteko edo ez egiteko beharra, etab.*). Ez du barne hartzen, halaber, erakundearen funtzionamenduaren gastua eta bere zerbitzuen errendimendua zehazten dituen inolako azterketa ekonomikorik (*proiektuaren errentagarritasun ekonomikoaren eta sozialaren analisia*), berez, ezin da proposatutako erakundea martxan jartzea alderdi ekonomikotik eta finantzariorik arrazoizkoa denik adierazi, ezta zerbitzuen gastuaren eta errendimenduaren egoera, bilakaera eta aldaketak aurreikusi edo horren eraginkortasunari buruzko iritzi arrazoiturik eman ere [C2) 2)].

Horrez gain, kontuan izan behar da beharrezkoa dela, dagokion arloko (*kasu honetan portuak*) kudeatzaile integral gisa arituko den erakunde berri bat sortu nahi duen araudi-proiektuaren planteamendua bat etor dadin Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak egiteko azken ekitaldietan onartutako aurrekontu-xedapenekin (*“ez da erakunde autonomorik, zuzenbide pribatuko erakunde publikorik, sozietate publikorik, fundaziorik eta partzuergorik sortuko”*), sorrera horrek arloarekin zerikusia duten eginkizun guztiak ipso facto barne hartzea, eta gaur egun hainbat erakundetan sakabanatuta dauden bitartekoak eta baliabideak biltzea. Horretarako, erakunde batzuk desagerrarazi eta beste batzuk berregituratu egin beharko dira, jarduketak bikoiztea edo gainjartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorarentzako gastu garbia areagotzea saihestuz. Ildo horretan, lehen ere adierazi dugun moduan, espedienteak argi eta zehaztasunez adierazi beharko luke integrazio-prozesua eta dagokion sailaren egituraren ekarriko lukeen murrizketa, baita honako sozietate hauetan ere: Euskadiko Kirol Portua S.A. eta Zumaiako Kirol Portua S.A. sozietate publikoak, eta El Abra-Getxo Kirol Portua S.A. partaidetzako sozietatea.

Itsas Garraioko Enpresen Erregistroari dagokionez, espedientean ez dira zehazten erakundea martxan jartzeko beharrezkoak izango diren giza baliabideen eta baliabide materialen beharra eta horien gastuak (*funtzionamendu- eta ekipamendu-gastu arruntak*).

4. artikuluan zehaztutako administrazio-organo berriei dagokienez (*aholku-emaileak eta parte-hartze instituzional eta sozialekoak*), espedienteak barne hartzen duen memoria ekonomikoak ez du horiei buruzko behar adinako informaziorik barne hartzen (izan dezaketen tamaina, eraginkortasun-epeen aurreikuspenak, lotutako funtzionamendu-gastuak); dena den, ez dirudi organo horien sorrerak eta funtzionamenduak gastua gehiegi areagotuko duenik, izan ere, desagertzen direnen ordeztu arituko dira; zehazki, hauen ordeztu: *Portu Batzarrak (Hondarribiko, Getariako, Ondarroako*

*eta Bermeoko portuetakoak) eta Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa. Edonola ere, izaera bereko beste organo batzuen funtzionamenduaren ondoriozko esperientziak agerian jartzen du gastuen aurrekontuaren gainean izan dezakeen eragina neurritzkoa dela, eta aurrekontuen legeek barne hartzen dituzten administrazio-instanzien funtzionamendu gastuetarako ezarri ohi dituzten zuzkiduren bidez ordaintzeko modukoa.*

## **2).- Diru-sarrerei dagokienez:**

Alderdi honetan eragiteko arrazoi nagusiak hauek dira: zerbitzuak emateagatik eta portuko jabari publikoa erabiltzeagatik kobratzen diren tasak (*tasak: T-1, ontziak; T-2, bidaiariak; T-3, salgaiak; T-4, arrantza freskoa; T-5, seigarren eta zazpigarren zerrendetako ontziak; T-6, altxatze-zerbitzuak; T-7, aparkatzea; T-8, ur eta energia elektrikoaren hornidura; T-9, askotariko zerbitzuak; eta portuko jabari publikoaren okupazio pribatiboagatik eta erabiltzeagatik tasa*), horien bidez ordaindu beharreko zerbitzuak emateagatik prezio publikoak eta isunen bilketa (*51. art., V. tituluan polizia- eta zehapen-araubidea barne hartzen duena*).

Azken horiei dagokienez, espedienteak barne hartzen duen memoriak ez du horietatik eskuratutako diru-sarreraren kopuruaren estimaziorik egiten (*ezta gutxi gorabeherakorik ere*); izan ere, adierazten denaren arabera, ezinezkoa da halakorik egitea, egingo litzatekeen edozein estimazio ez bailitzateke zuzena izango. Ildo horretatik adierazi behar da egia dela orain arte, horretarako legezko antolaketa ezean, ezin izan dela arlo honetako zehapen-jarduerarik gauzatu, eta ez dugula urtez urteko estimazio zorrotzak egiteko parametro esperimentalik; baina, interes orokorreko portuetako (estatuko administrazioak kudeatutakoak) eta gainerako autonomia erkidegoetako egungo egoeraren konparazio-azterketa egin denez, eman ditzakeen diru-sarreraren arrazoizko kalkulu bat egin daiteke. Bestalde, lan hori erakunde hartzaileen aurrekontuak egitean gauzatu beharko litzateke nahitaez. Antzeko gogoetak egin ditzakegu argudiatutako arrazoi berdinarengatik espedientearen memoria ekonomikoan neurtu ez diren beste jarduketak batzuen eragin ekonomikoari dagokienez (*portuko lan publikoen emakida- eta ustiapen-kontratuetatik ateratako diru-sarrerak, edo emakiden desjabetzeek edo erreskateek sorrarazitako gastuak*).

Portu-zerbitzuak emateagatik tasei eta prezio publikoei dagokienez, espedienteko memoria ekonomikoak (*2014-10-10ean egindakoa*) agerian uzten du portuko tasen araubidearen aldaketak diru-sarrera publikoak nabarmen areagotuko dituela, izan ere, zenbateko finkoko tasak % 4 areagotu dira. *Igoera hori 2014ko urtarrilean eginiko azken eguneratzea baino lehenagoko 10 urteetan tasek izan duten desfasearen ondoriozkoa izan daiteke, % 14koa izan baita, aldi bereko Kontsumo Prezioen Indizearekin alderatuta, horren igoera % 23,9koa izan baita gure autonomia erkidegoan (alabaina, asmoa ez da bi zifren arteko aldea estaltzea, egungo egoera sozioekonomikoa eta KPIak azken ekitaldietan izan duen bilakaera negatiboa kontuan hartuta).*

Komeni da gogoraraztea portuko administrazioak, ematen dituen zerbitzuen truke kontraprestazio ekonomikoa eskatu ahal izateko, zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta bere erakunde autonomoen prezio publikoen bidez ordain daitezkeen jardueren eta zerbitzu-prestazioen zerrendan sartu beharko dituela. Hori, Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginaren 31. artikulua arabera, dekretu bidez egin behar du, ogasunaren arloko eskumeneko sailak eta

zerbitzua ematen duen edo dagokion organoaren edo erakundearen gaintik dagoen sailak batera proposatuta (*gaur egun, 397/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituena; beraz, proiektatutako legea indarrean sartzean, dekretu hori aldatu egin beharko litzateke*). Ondoren, prezio publikoak ezarriko dira, horiek kobratuko dituen organoaren edo erakundearen gaintik dagoen saileko titularraren agindu bidez (*Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginaren 33.1.a*) art.).

Espedienteak barne hartzen duen Zerga Administrazioko Zuzendaritzaren txostenak, tasen araubidean sartu nahi diren aldaketen kausen edo arrazoen justifikaziorik ez dagoela egiaztatzeaz gain, honela adierazten du: *“Portuko tasen zenbatekoen eguneratzeen eta KPlaren bilakaeraren artean ikusitako desfasea 4 portzentaje-puntu zuzendu da, egoera ekonomikoa eta prezioen egungo bilakaera negatiboa oinarritzat hartuta. Alabaina, argumentu hori ezin zaie uniformeki aplikatu emandako portu-zerbitzu guztiei eta dagozkien tasetan adierazitako kuotei. Ez da kontuan hartzen, halaber, sortutako gainerako desfasea (gutxienez beste 5 edo 6 portzentaje-puntu) arrazoizko denbora-epe batean berdintzeko aukera, aurreproiektuaren xedapen iragankor baten bidez”*. Alabaina, gogoeta horiek ez dute erantzunik jaso espedientearen beranduagoko planteamenduan, ezta proiektatutako araudiaren jarduketan ere.

Zaila da proiektatutako tasen eta ezar daitezkeen prezio publikoen zenbatekoaren kalkulua egitea, ekitaldi zehatz baterako, izan ere, egoera ekonomiko orokorraren bilakaeraren arabera aldatuko da (*zergapetutako portu-zerbitzuen benetako erabilera baldintzatuko baitu*), eta baita indarrean sartzen den unearen arabera ere. Espedienteak barne hartzen duen memoria ekonomikoak gauzatu zen unean eskuragarri zeuden datuekin eginiko hainbat taula barne hartzen ditu. Bertan, 2013. urteko ekitaldiko datuetatik abiatuz, diru-sarrerak kuantifikatzen ditu (4.441.372,48 €), honela banatuta: tasak, prezio publikoak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko 2015. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legeak (*EHA, 248. zk., abenduaren 30ekoa*) kontzeptu horri dagozkion diru-sarreraren kalkulua jasotzen du 5151 (*Portuak*) aurrekontuen programa ekonomikoari dagozkion diru-sarreraren egoeretan (zehazki, 6.126.610 €).

Espedienteak barne hartzen duen aipatutako memoriak ez ditu Itsas Garraioko Enpresen Erregistroa martxan jartzeagatik administrazio-zerbitzuengatik tasa kobratzearen ondoriozko diru-sarrerak kalkulatzeko (*horien zerga egitatea, 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginaren 40.1.c*) artikuluan zehaztutakoaren arabera, honako hauek osatzen dute: *administrazio orokorreko sailek eta erakunde autonomoek erregistroetan eta errolda ofizialetan inskribatzeagatik ematen dituzten zerbitzuen prestazioa; baina lege-testu horren 44. artikulua ez du arautu beharreko erregistroa salbuespen gisa hartzen, eta proiektuan ez da horren doakotasunik zehazten*).

#### **F.)- Beste administrazio publiko batzuek, partikularrek eta ekonomia orokorrak jasango duten eragin ekonomikoa**

Espedienteak barne hartzen duen memoriak honako adierazpen hau barne hartzen du: *“ez da aurreikusten egungo egoeratik ateratako gastuez kanpoko beste eragin edo gastu gehigarririk, aurreproiektuak barne hartzen dituen zehapenak edo isun*



*hertsatzaileak jartzeko ahalmena aplikatetik atera daitezkeenak izan ezik. Gastu horiek aurreproiektuak barne hartzen dituen tasen subjektu pasibo izaeratik atera daitezkeenak dira, edo Portu Antolamendurako Plan Bereziek edo Portuko Espazioen eta Erabileren Mugaketak ezartzen dituen betebeharretatik edo eskakizunetatik ateratzen direnak, portuak planifikatze, antolatze, eraikitze eta mantentze aldera". Hala ere, memoriak ez du atal horietarako aurreikus daitezkeen kostuen estimazio neurturik barne hartzen.*

#### **IV. ONDORIOAK**

Erreferentziazko espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, bulego honek egoki irizten dio, labur-labur eta ondorio gisa, ohar eta gomendio hauek emateari:

**1.-** Espedienteak barne hartzen duen txosten juridikoa ikusita (II, 5) ondoriozta daiteke proiektatutako ekimena bideragarria dela; dena den, zenbait ohar egiten dizkie hasiera batean proposatutako baldintza batzuei, eta ohar horietako guztiek ez dute erantzuna jaso bulego honek azter dezan aurkeztutako testuan (ez dira justifikatu testuak barne hartzen dituen alderdien hasierako planteamenduari eusteko arrazoiak).

**2.-** Espedientea Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen eskakizunetara ondo egokitu da orain arte [A1]]; alabaina, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan zehazten duen enpresako eraginaren txostena gehitu behar zaio espedienteari, Gobernu Kontseiluari bidali aurretik, baita prozeduraren memoria labur bat ere, gauzatutako txosten desberdinek barne hartzen dituzten oharrek ez onartu izana arrazoitzen duena eta araudi-proiektuak ekarriko dituen administrazio-kargen erreferentzia zehatza egiten duena [A2) c)].

**3.-** Aztergai dugun proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasunaren arloko gaietan eragiten duenez, hori onartzeko proposamena Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak eta Ogasun eta Finantza sailburuak batera egin beharko lukete [A2) a)].

**4.-** Hala eta guztiz ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak erabaki behar du bideragarria den edo ez, eta bulego horri jakinarazi behar zaizkio izapidetzean egindako gomendio eta proposamenen ondorioz proiektuan gauzatutako aldaketak [A3)].

**5.-** Aurkeztutako testuko alderdi jakin batzuei buruz jasotako iradokizunak kontuan hartzea gomendatzen da; zehazki, atal hauetan jasotakoak: B2), C2), 5), 6), 7), 8), 10) eta 11).

**6.-** Proiektuak aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko antolamendu-egituran: (1) zuzenbide pribatuko erakunde publiko berri bat sortzea (KAIK); (2) administrazio-unitate berri bat sortzea: *Itsas Garraioko Enpresen Erregistroa (IGEE)*; (3) egungo portuen arloko aholkularitza-, kontsulta- eta eztabaida-organoak ezabatzea; eta (4) azken horiek ordeztzeko beste batzuk sortzea aurreikusten du.

**7.-** Bulego honen iritziz, espedienteak ez du islatzen zehaztutako helburu publikoak betetzeko erakunde deszentralizatu bat sortzeko beharraren justifikazioa, ezta helburu eta zeregin horietarako legez ezarritako tipologiaren artean aukeratutako pertsonifikazio juridikoaren egokitasunarena ere [C2) 2)]. Bestalde, proiektuak ezarri nahi duen KAIKAK zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren erregulazioak ez du duela gutxi Gobernu Kontseiluk zehaztutako gutxieneko edukia betetzen (*Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren onarpenaren harira*), izan ere, estipulazio batek ere ez ditu honako alderdi hauek zehazten: Administrazio Kontseiluaren osaera eta bertako kideak izendatzeko prozedura; erakundeari esleitutako zereginen banaketa, Administrazio Kontseiluaren eta Zuzendaritzaren artean; erakundeari atxikitako langileak eta ondarea; eta erakundea desagerrarazteko eta likidatzeko prozedura. Aipatutako gabeziak zuzendu egin beharko lirateke [C2) 3)].

**8.-** Bestalde, EAEko portuen arloko kudeaketa integralerako erakunde berri baten sorrera ezartzen duen araudi-proiektu batek koherentea izan behar du Eusko Jaurlaritzak azken ekitaldian aurrekontuak egiteko onartutako aurrekontu-xedapenekin (*azkenak, 2016ko aurrekontuei dagozkienak, 2015-06-09an onartu ziren*), eta, horretarako, beharrezkoa da EAEko administrazioaren sektore publikoa berregituratzea, erakunde horren esku utziz aipatutako arloko zeregin guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren gastu garbi orokorra areagotzea saihestuz. Ondorioz, espedienteen zehaztu egin behar da sorrera horrek dagokion sailaren egituran izango duen integrazioa eta eragin zehatza (*gaur egun, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Garraio Sailburuordetza, Garraio Azpiegituren Zuzendaritza*), eta baita egungo sozietateetan ere: *Euskadiko Kirol Portua S.A. eta Zumaiako Kirol Portua S.A. sozietate publikoak, eta El Abra-Getxo Kirol Portua S.A. partaidetzako sozietatea*. Izan ere, gaur egun zereginak erakunde horien guztien artean banatuta daude.

**9.-** Itsas Garraioko Enpresen Erregistro berriari dagokionez, LEAk egindako oharrei erantzuteaz gain, erregulazioa osatu egin beharko litzateke, funtsezko zenbait gai landuz (*inskribatzeko baldintzak eta horren eraginak*). Horrez gain, erregistroa barne hartzen duen erakundea eta administrazio-egitura identifikatu beharko lirateke, eta martxan jartzeko epe bat zehaztu beharko litzateke [C3)].

**10.-** Portuen arloko egungo aholkularitza-, kontsulta- eta eztabaida-organoak kentzeari eta horiek ordeztuko dituzten beste batzuk sortzeari dagokionez, berriak sortu arte oraingoak beren horretan mantentzea proposatzen da, baita sorrera hori gauzatzeko epe bat ezartzea ere [C4)].

**11.-** Ezin da aztergai dugun testuak barne hartzen dituen antolamendu-xedapenen arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioaren adierazpen egokirik egin, txosten honetako E) atalean adierazitako gabeziak direla eta. Beraz, gabezia horiek zuzendu egin behar dira.

**12.-** Aztergai dugun araudi-proiektuak honako arlo hauetan du eragina Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren baitan: ondare-araubidea, kontratazioa, eta zergak nahiz zuzenbide publiko eta pribatuko gainerako diru-sarrerak. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 1.2 artikuluan identifikatutako gainerako arloetako eragina ez da kontuan hartzeko adinakoa [D)]. Bulego hau bat dator arlo bakoitzeko instantzia espezializatuek beren txostenetan emandako iritziekin.

**13.-** Espedienteak barne hartzen duen memoriak beste administrazio publiko batzuentzako, partikularrentzako eta ekonomia orokorrerako eragina edo gastu gehigarria aipatzen badu ere, ez du horri dagokion zenbateko zehatzik ematen [F)].